YOYES

BERE LEIHOTIK

Obra honen edozein erreprodukzio modu, banaketa, komunikazio publiko edo aldaketa egiteko, nahitaezkoa da jabeen baimena, legeak aurrez ikusitako salbuespenezko kasuetan salbu. Obra honen zatiren bat fotokopiatu edo eskaneatu nahi baduzu, jo CEDROra (Centro Español de Derechos Reprográficos, www.conlicencia.com; 91 702 19 70 / 93 272 04 47).



1. argitalpena: 2026ko azaroan

Azaleko argazkia:
Juanjo Dorronsoro

Liburuaren diseinua eta maketazioa:
Asier Beltza

© Lehen edizioa:
Elixabete Garmendia Lasa,
Glori Gonzalez Katarain,
Ana Gonzalez Katarain,
Juli Garmendia Lasa eta
Juanjo Dorronsoro

© Edizio honena:
Elixabete Garmendia Lasa,
Glori Gonzalez Katarain eta
Juli Garmendia Lasa

© EREIN. Donostia 2026

ISBN: 978-84-1093-157-2
L.G.: D 1095-2026

EREIN Argitaletxea. Tolosa Etorbidea 107
20018 Donostia
T 943 218 300
erein@erein.eus
www.erein.eus

Inprimatzailea: Gertu inprimategia
Zubillaga industrialdea, 9
20569 Oñati, Gipuzkoa
T 943 783 309
gertugrafika@gmail.com
www.gertu.net

Liburu hau inprimatzeko erabili den papera ekologikoa da eta modu jasangarrian kudeatutako basoetatik dator.

YOYES
BERE LEIHOTIK

LIBURU HONEN EGILEAK DIRA:

Elixabete Garmendia Lasa
Glori Gonzalez Katarain
Ana Gonzalez Katarain
Juli Garmendia Lasa
Juanjo Dorronsoro

LIBURU HONEN EUSKARAZKO BERTSIOAREN EGILEAK DIRA:

Elixabete Garmendia Lasa
Glori Gonzalez Katarain
Juli Garmendia Lasa

erein

Beren testigantzak, idatzizkoak nahiz ahozkoak, eman dituztenak:

Isa Gonzalez Katarain, Koldo Iztueta, Anne Etcheverry, Mª Asun Gonzalez Katarain, Angelita Katarain Kaminaur, Luis Gonzalez Redondo, Jesus Echamendi, J. Asurmendi, Pedro Moctezuma, Jorge Gutierrez, Rocio Díazescobar, Gema Gonzalez Katarain, Arantxa Otaño, Marian Trujillo, Mª Jesus Arizmendi, Isabel Gonzalez, Mari Karmen Garmendia, Ana Zurutuza, Lore Goenaga, Lurdes Auzmendi, Ana Ereño, Itziar Aiestaran, Agustin Txurruka, Charo Maiztegi.



SARRERA

«Bizitzea da ahalik eta esperientziarik zabalena
kontzientzia bihurtzea».
ANDRÉ MALRAUX

Yoyesek ez zuen bere liburua argitaratu, baina idatzita utzi zigun. Ez zuen argitaratu lehendik pentsatuta zeukan eta azken egunak arte zirriborratzen ibili zen hura; ezta nerabezaroan amesten zuena ere. Baina argitaratzeko asmorik gabekoa bazen ere, hau utzi zigun, bost koadernotan jasotako egunerokoa, bere bizitza ezagutzen eta ulertzen laguntzen diguna.

1987an –hura erail eta urtebetera– argitaratu genuen *Yoyes, desde su ventana*. Hauek ziren, eta dira, haren idatziak publiko egitera eraman gintuzten arrazoiak:

> Lehenik eta behin nahi izan dugu hark izan zituen ideiak, kezkak, sentimenduak, ilusioak eta desilusioak, paperean jasotzen jakin zituenak, ahaztuta ez geratzea. Sinesten dugulako haren ahaleginak merezi izan zuela, eta haren idatziek balio propioa dutela, egilearen amaiera tragikotik haratago.
>
> Halaber, eragin handia izan du guregan emakume honengandik hain hurbil sentitu izanak; izan ere, haren gaztaroa konpromisoz eta arriskuz betetako jardueretan eman eta heldutasunera esku hutsik geratu izanaren sentsazioarekin iritsi zenean, berriro ere egunerokotasunarekin eta transzendentearekin, konkretuarekin eta unibertsalarekin bere bizitza betebeharra sentitu zuen belaunaldi baten parte izan baitzen.
>
> Mugitu gaitu, gainera, emakumeak garen aldetik sentitzen dugun elkartasun intimo horrek, askotan gutxietsia, azaltzen zaila, baina presentea eta bere bizitzako pasarte bakoitzean izan zuen jokabidea ulertzera eramaten gaituen elkartasuna. Sentiarazten digu, halaber, pertsona batzuek (erakunde bat uzteagatik zigortzeko eskubidea

zutela uste zutenek) harekiko sentimendu susmagarriak izan zituztela. Eta adorea ematen digu gu geu izaten jarraitzeko, eta ez besteek nahi dutena.

Horregatik guztiagatik jakin genuenetik berak koaderno eta orri gehiago betetzen ezin izango zuela jarraitu, modu batera edo bestera haren bizitzaren lekuko izan ginenok –maila, garai eta egoera desberdinetan– eta sekula onartuko ez dugunok gure artetik bortxaz kendu izana, erabaki genuen liburu hau argitaratzea, orain, euskarazko bertsioan, irakurleak esku artean duen hauxe.

Sakonean mindu gintuzten Yoyes desitxuratu, zikindu, iraindu eta beren epaia bete ondoren berriro epaitu nahi izan zutenen ahaleginek. Noizbait haren laguna zela esan zuen jendearen isiltasun konplizea behin eta berriz gaitzetsi genuen eta gaitzesten jarraitzen dugu.

Badakigu haren historiak irakurketa ezberdinak izan ditzakeela. Baina nahi genuke liburu honetara hurbiltzen denak ez bilatzea gogoz kontra mito bihurtu zen pertsonaia –batzuentzat positiboa, besteentzat negatiboa–, baizik eta bizitzari bere leihotik begiratu eta hura ulertzen saiatzen zen emakumea, gero eta kontzientzia handiagoz kontsekuenteago bizitzeko ahaleginean. Horren lekuko dira haren idatziak.

Idatzi horiek testuinguruan kokatzeko eta errazago ulertzeko, Yoyesen bizitza-zertzelada batzuk aurkezten ditugu, familia jatorrietatik hasi eta haren bizitzako azken egunera arte, 1986ko irailaren 10ean. Ez da biografia osoa, horrek azterketa sakonago bat eskatzen baitu; bizitza markatu zioten agertokiak eta gertakariak –txikiak zein handiak– baino ez ditugu aipatu.

Yoyesek ehunka gutun eta egunerokoa jasotzen duten bost koaderno utzi zizkigun. Ez dugu ia ezer aukeratu haren korrespondentzia ugaritik, erreferentzia pertsonalez beteta dagoelako eta intimitatearekiko errespetuagatik. Egunerokotik, berriz, adierazgarriena hautatu dugu. Horregatik, batzuetan, benetakoa baino tarte luzeagoa dago data batetik bestera, baina horrek ez du eragozten haren abentura pertsonala ezagutzea.

Egunerokoa, batez ere, 1979tik aurrera landu zuen Yoyesek. Aurretik ere idazten zuen bere buruaz eta inguruneaz, baina jarduera etengabeak eta klandestinitatearen diziplinak eragotzi egiten zioten idazketa sistematikoa.

1979ko egunerokoa Biarritzen idatzi zuen, eta barruan zeraman borroka gogorra erakusten du: ohartu zen Euskadiren askapen prozesua, armen bidez, ez zihoala aurrera, eta armak eskuan borrokan hiltzeak ez zuela zentzurik, ez zuelako prozesu iraultzailea azkartzen.

Yoyesek kontatzen du nolako dardara eragin zion gorputzean eta ariman ETAko zuzendaritzari erakundea uzteko asmoa adierazi zionean. Ez du

hitzik esaten zuzendaritzako kideekin zituen desadostasunez; arazo politikoa pertsonalizatu egiten du, bazekielako bere zalantza sakonak argi azalduz gero, aurkariek hobia prestatuta ziotela.

1980tik 1984ra bitarteko egunerokoa Mexikon idatzia da. Yoyesek Ipar Euskal Herrian bizi izan zuen beldur girotik ihes egitea lortu zuen, eta Mexiko Hirian bere bizipenak zabaldu eta aberasten saiatu zen; hango kontraste kulturalak zailak egiten zitzaizkion, baina aldi berean interesgarriak.

Haren larritasun existentziala ez zen berehala desagertu, baina unibertsitate giroan sartzeak aukera ematen zion unibertsaltasun handiagoz pentsatzeko eta aurretik ezagututako mugetatik haratago bizitza ikusteko.

1985eko egunerokoa Mexikon, Parisen, Biarritzen eta Donostian idatzia da; 1986koa, berriz, Donostian bakarrik. Yoyesek bere barne azterketarekin jarraitu zuen, nahiz eta bere bizitza aldatu. Politikaz ez hitz egiteko ohitura apurtzen hasi zen. Ez zen isildu ETAren inguruko presioen aurrean, ezta komunikabideen manipulazioaren aurrean ere. Ez zuen publikoki hitz egin, baina egunerokoan azalduz joan zen bere itzuleraren arrazoiak, baita euskal kulturarekiko bere ikuspegia ere, eta salatzen hasi zen ETAren nahiz Herri Batasunaren jarrera itxia.

Bere bizitzaren egia sakona adierazteko beharra barru-barrutik sortzen zaio, existentziaren mugetatik, berak bilatu eta maite zuen bakardadetik. Horregatik, egunez egun hartzen zituen erabakiak, hausnarketa sakonean oinarrituak, behin betikoak ziren, ia itzulezinak. Ez zuen inposaketarik onartzen, ezta kanpoko araurik ere.

Yoyesek frankismoari ezetz esan zionean, armak hartu eta bere etxea uztera iritsi zen; ETAri ezetz esan zionean, aldiz, urrats negoziaezina egin eta jaioterrira itzuli zen.

Ez zen damutu egindako bideaz, ezta bere akatsez edo gabeziez ere. Egunerokoan kontatzen duena ez da anekdota hutsen edo egunez egun bizi izandako gertakari arrunten bilduma, ezta estrategia politiko hutsa ere. Idaztean, batez ere oreka psikikoa bilatzen zuen; modu jakin batean jokatzera eta bere esperantza sortzera bultzatzen zuten motibazioetan sakondu nahi izan zuen.

Yoyesek ez zion askatasunari beldurrik, ez zuen gustuko errealitate sozial edo indibidualetik ihes egitea, errealitateari aurre egin nahi izaten zion, ez zen egoera zailari edo mingarriari kontzienteki ihes egiteko gauza. Horretarako, egunez egun bere koadernoan hausnartzen zuen, bere jardunaren analisia eginez. Tarteka, galdera moduan gogorarazten zion bere buruari Tina Modottiren esaldia: «Zenbat aldiz has daiteke bizitzen bizitza batean?».



1

Lehen urteak

(Ordizia, 1954-1970)

> Haurtzaroaz hitz egitea atxonaz hitz egitea da, hark hezi baikintuen, aita eta ama lanean ari ziren bitartean; misterioz betetako etxe handi batez hitz egitea da, Goitine, gela, pasillo eta atxonak zizelkatzen zituen antigoaleko altzariz betea; aroztegiaz hitz egitea da, eta gure jolasak eta abestiak isilean gordetzen zituen baratzaz, egur landuzko sehaska handiari buruz, non kulunkatzen gintuzten eta loak hartzeko kantatzen ziguten. Familiari buruz hitz egitea da, sekulako garrantzia izan baitzuen zure bizitzan eta gurean; gure egurrezko panpinez, edo, geroagoko kartoizkoez; jada asko ginenean gu zaintzen gintuzten neskez; eta mojen La Milagrosa kolegioaz: eskutik helduta eramaten gintuzten hara, bata zuriarekin edo pañozko uniforme urdinarekin, lepoan lazoa zuen alkandora zuria eta txapela jantzita. Hala ikusten zaitugu lehen jaunartzea egin zenueneko argazkietan. Ikastetxetik eguerdiko hamabietan itzultzen ginenean, atxonak tomatetan bustitako ogia ematen zigun, jolasean ari ginen bitartean; erregina, printzesa nahiz ijito bihurtzen ginen, dantzan, kantuan… mozorroak jantzita, etxea, mahaiak, armairuak ezkutatzeko geureganatuz, korrika eta saltoka… [Isa Gonzalez Katarain]

Isaren oroitzapenetan Yoyesen haurtzaroko gako batzuk biltzen dira. Lehenik eta behin, *atxona* agertzen da. Amaren aldeko aitona, Jose Katarain Gereñu (Segura, 1888), Ormaiztegin hazi zen eta bertan ikasi zituen zizelkaritza eta altzarigintza; gero, Ordizian finkatu zen. Alargundu ondoren, bere lehengusina Maria Kaminaur Gereñurekin (Zegama, 1891) ezkondu zen, Ameriketan beste harreman batetik izandako hiru seme-alaben ama. Ezkontza hartatik, beste hiru seme-alaba jaio ziren; zaharrena, Angela edo Angelita, Yoyesen ama.

Jose Katarainek bihurtu zuen Goitine seme-alaben eta biloben sehaska eta etxe. Goitine etxe zaharra zen, haren jatorria bilatzeko urte asko egin behar da atzera, agian mendeak. Jauregi ez bazen ere, ez zen etxe arrunta. Oria ibaiak bereizten zuen hura eta *Construcciones y Auxiliar de Ferrocarriles* (CAF) enpresa, Goierriko handiena eta tradizio luzeenetako baten jabea, baita borroketan ere. Goitinetik oso gertu, CAFeko zubitik Txindokiren silueta dotoreenetako bat ikusten da, Aralar mendilerroaren muturrean, eskualdeko mendirik ezagunena.

Goitine Ordiziako Urdaneta kalearen amaieran zegoen;[1] kale hori, erdigunean, Goiko Portaletik (edo *Puerta del Sol* deitzen dutenetik) abiatu eta malda leunean Beasainerantz jaisten da, alboko herrirantz. Kale horretan, Ordizian hain ugariak ziren denda txiki asko zegoen; merkataritza-tradizio handiko herria da Ordizia, eta tradizio hori neurri handi batean asteazkenetako feriak elikatzen du, Gipuzkoako ospetsuenetakoa eta indartsuenetakoa. Gonzalez Katarain familia merkataritzarekin lotuta dago bi adarretatik.

Gonzalez familia León probintziatik dator. Aitona, Vicente Gonzalez Mosquera (Otero de Escarpizo, 1879), aurrena Barakaldora (Bizkaia) joan zen, eta handik Panamara emigratu zuen, kanalaren eraikuntza lanetan aritzera. Handik itzulita, Asuncion Redondo Azkarate (Barakaldo, 1891) lehengusina bigarrenarekin ezkondu zen. CAF enpresan lana lortuta, Beasainen bizi izan ziren urte batzuetan, eta, gero, Ordizian kokatu ziren. Izan zituzten sei seme-alabetatik gazteena, Luis, izan zen Yoyesen aita.



Goitine, Urdaneta 43.



Goitine ibaiaren aldetik.

[1] 1991n eraitsi zuten Goitine.



Atxona biloba batzuekin, Goitinen. Yoyes goian ezkerrean.

Katarain familiak Goierrin bertan ditu sustraiak; Gonzalez familia, berriz, Euskal Herriko industrializazio goiztiarrak erakarritako lehen immigrazio olatukoa da. Bi jatorri horien ondoriozko osagai mistoa urte luzez egon da presente Gonzalez Katarain familiaren ibilbidean, eta nolabait familiako bi gizon horiek irudikatzen dute: Jose Katarain aitona, euskalduna eta euskaltzalea, poz handia hartzen zuena bere bilobak euskara ikasten eta euskaldun sentitzen hasten zirenean; Luis Gonzalez aita, berriz, erdalduna, espainiarra konbentzimenduz eta apolitikoa, ezarritakoa errespetatzen zuena, nahiz eta familian aurrekari errepublikarrak bazituen.

Bi adarren arteko ezaugarri komuna, merkataritzan ari zirela biak. Jose Katarainek altzariak fabrikatzeko eta saltzeko tailerra izan zuen Goitinen bertan; emaztea josten eta jantziak saltzen aritzen zen, eta lan horietan oso gaztetatik lagundu zion Angelitak. Vicente Gonzalezek, nahiz eta arotza izan lanbidez, azkenean janari denda bat ireki zuen Ordiziako Urdaneta kalean, Goitinetik gorago, ehun bat metrora. Denda hori Gonzalez Katarain familiaren *La Tienda* bihurtu zen, Goitineren ondoren bigarren erreferentziazko tokia.

Aita, Luis, hainbat produkturen saltzaile eta banatzaile izan zen: balantzak, kontserbak, txorizoak, turroiak… Horrek eskualde osoan bidaiatzera eramaten zuen; ama, Angelita, berriz, dendan aritzen zen. Bizitza Goitineren eta dendaren artean banatuta zegoen.

Hain zuzen ere, dendaren eta etxearen artean erditu zen Angelita bigarren alabaz. Dendaren atzealdean zuten etxebizitzan afaldu ondoren, ondoezik sentitu zen, erditze-minetan. Berehala joan zen jaiotetxera, Goitinera, eta gauerdia jotzear zela jaio zen neskatxa. 1954ko maiatzaren 14a zen; handik egun gutxira, jaioberriari izeba baten izena jarri zioten –bataiora besoetan eraman zuenarena–: Maria Dolores. Izen hori, ordea, laster bihurtu zen ia ofizial hutsa, etxeko txikien hizkeran sortutako izenak ordezkatuta: Yoyes.

Nahiz eta agiriek adierazi María Dolores González Catarain 1959ko irailaren 15ean hasi zela eskolan, hiru urterekin jada Karitateko Ahizpen La Milagrosa kolegiora joaten zen. Familiako anekdoten artean, kontakizunaren

arabera aldaera txikiekin bada ere, Yoyesen izaera ez-konformista erakusten duen pasadizo bat gogoratzen dute. Mojak agindutako paloteak egiteaz nekatuta, honela mehatxatu omen zuen: «Ni moja naizenean eta zu neskatxa, arratsalde osoan paloteak egiten edukiko zaitut».

Gainerakoan, neskato saiatua eta konplikaziorik gabea zen, baina behin eta berriz galdezka zebilena. Asun nekatuta zuen hainbeste galderarekin. Horregatik, *filosofoa* deitzen zion, Yoyes haserretu egiten zen hitza itsusi egiten zitzaiolako; baina berriro galdetzen zuen: «Eta hori zer da?».

Yoyesi gehien gustatzen zitzaiona zen edozein trapurekin janztea, kantatzea, dantzatzea eta antzerkia egitea; jolas horiek ahizpekin eta lehengusinekin partekatzen zituen, eta batzuetan, izebaren batek ere laguntzen zuen. Hainbat aldiz aritu zen publiko aurrean ere, eskola ospakizunetan eta antzekoetan.



Yoyes Rivabellosan.

Familia pixkanaka handitu izanak eragin zuen Yoyesek 1963-64 ikasturtea Donostiako Goienetxe kolonian igarotzea. Han, apaizari elizako lanetan laguntzen zion. Egonaldia gertakari batek ilundu zuen. Egun batean, ama beltzez jantzita iristen ikusi zuen eta berehala susmatu zuen gertatutakoa: Asuncion amonaren heriotza. Behin heldu eta gero aitortu zuenez, hura izan zen heriotzarekin izan zuen lehen kontaktua. Urte batzuk geroago, berak ere oso gertu izango zuen, peritonitis baten ondorioz premiazko eta larritasun handiko ebakuntza egin behar izan baitzioten.

> Haurtzaroa bat-batean amaitu zen, mojen ikasketak bukatu eta Akademiara pasatzean. Jolasak utzi eta dendako lanarekin ordezkatu behar izan zenituen; amak mantal urdin bat egin zizun, zure izena sakelan josita. Metalezko kutxa gris eta arrosa batean Kennedy eta Luther King-en prentsa-errekorteak gordetzen zenituen postal eta abeslarien argazkiekin batera; baina jada ez zenuen eztabaidatzen Marisol ala Rocío zein ote zen onena. [Isa]

1964-65 ikasturtean sartu zen Yoyes Ordiziako Urdaneta Akademian, batxilerra egiteko. *La Academia,* hala ezagutzen baitzen antonomasiaz, benetako

erakundea zen Goierrin, oraindik existitzen ez zen institutuaren funtzioak betetzen baitzituen. Ikasgelak Muxika dorretxean antolatuta zituen, herriko elizaren ondoan. Eraikin berean zeuden Udal Eskolak, Musika Eskola eta izaera publikoko beste areto batzuk ere. Ikastetxe ofizialki aitortua ez zenez, ikasturte amaierako azterketak Donostiako institutuetan egin behar izaten ziren, urte osoko lana bizpahiru egunetan jokoan jarriz. Yoyes, klaseko ikasle nabarmenetako bat ez bazen ere, oztopo handirik gabe joan zen osatzen batxilerra.

Apaiz batek –don Antonio Yarzak– zuzentzen zuen arren, irakaskuntza mistoa izateak, garai hartan ez oso ohiko gauza, izaera berezia ematen zion Akademiari, fraide eta mojen ikastetxeena ez bezalakoa.

Bestalde, Goierriko baserri girotik etorritako ikasleen eta Ordiziako kaletarragoen arteko elkargunea izateak bi mundu desberdinen topagune bihurtu zuen, betiere Goierriko mikrokosmosaren barruan. Yoyesek han izan zuen aukera baserri giro euskalduna ezagutzeko, batez ere Lazkaomendiko Ana Zurutuzarekin izan zuen harremanaren bidez, lagun min izan baitzuen urte haietan guztietan. Ingurune eta izaera desberdinetan oinarritutako adiskidetasuna zen, baina nerabezaroko ilusio, aurkikuntza eta kezkak partekatzeak sendotua.



Futbol partida baten aurretik, Gora neskak! 1968.

Yoyes nahiko isila zen, baina aldi berean jendearekin harreman sakonak izateko erraztasuna zuen, eta gaitasun hori urteekin handitzen joan zen. Komunikatzea gustatzen zitzaion. Ia guztia zalantzan jartzen zuen, eta interes handiz entzuten zuen bere ezagutza handitu zezakeen guztia, bere ikuspegia zabaldu eta inguruko mundua hobeto ulertzen lagunduko zion edozer. Horrela jakin zuen, elkarrizketa isilen bitartez, euskaldunek beren bandera zutela, ikurrina, batzuek ikastetxeko mahaietan ezkutuan marrazten zutena, alboan GORA EUSKADI idatzita. Franco gaiztoa zela ere esaten zuten.

Yoyesek jakin-min handiz entzuten zituen horiek guztiak, etxean sekula ez baitziren aipatzen, eta horrek gehiago galdetzera eta hausnartzera bultzatzen zuen.

Familia, ordurako, handia zen: zortzi anai-arreba, hamabi urteko tartean jaioak. Asun eta Yoyesen ondoren etorri ziren Isa (1956), Jose Luis (1957), Glori (1959), Angel (1961), Luis (1962) eta Ana (1964). Geroago, Gema jaio zen (1970).

Yoyes bigarren ama bihurtu zen atzetik zetozenentzat; eta Asunek, berriz, bigarren aitaren eginkizunak betetzen zituen. Luis eta Angelita lanpetuegi zeuden familia aurrera ateratzen, eta alaba nagusien laguntza behar zuten, bai etxean bai dendan. Asunek, batez ere, kontuak eramaten zituen; Yoyesek, berriz, txikienak zaindu eta antolatzen zituen: bainuak, janztea, eskolako lanak… Baina dendan ere lagundu behar izaten zuen, eta akademiako atsedenaldiak nahiz oporrak bertan ematen zituen saltzen, lan hori oso gustuko ez zuen arren.



Denda eta aita, Urdaneta 15.

Nolanahi ere, asperdurak ez zuen lekurik Goitinen. Etxe irekia zen anai-arreben lagunentzat; izan ere, toki nahikoa zegoen jolasteko eta etxeko txokoetan, terrazan, sotoan zein baratzean galtzeko. Ama egun osoan dendan aritzeak etxea seme-alaben erresuma bihurtzen zuen; noizean behin bakarrik jartzen zuen aitak muga bere autoritatearekin. Hala gogoratzen dute, behin, Isa Goienetxera zihoala-eta, despeditzeko, anai-arreben eta gonbidatu batzuen artean txokolatada

handi bat antolatu zutela. Aitak *lanean* harrapatu zituen bete-betean, eta zigortu egin zituen: bostehun aldiz idatzi behar izan zuten «Txokolatea amek bakarrik egiten dute». Esaldia askotan errepikatu izan da Gonzalez Katarain familian.

Aisialdian, irakurketak toki garrantzitsua zuen. Horren lekuko, Yoyesek anai-arreben izenean Donostiako San Juan de Dios ospitalera idatzitako gutun batean ageri da. 1970eko abuztuaren 8koa da, eta honela dio:

> …Bederatzi anai-arreba gara; txikienak bi hilabete ditu eta zaharrenak 18 urte; denok, 6 urtekoa barne, oso zaleak gara edozer irakurtzeko, eta, horretan gastatzen genuen diruaz jabetu gabe, txisteak, aldizkariak, ipuinak eta noizbait libururen bat ere erosten eta irakurtzen ibili gara, nahiko liburu onak…

Material hori guztia eskaintzen diete ospitalean hartutako haurrei, gastatutako diruak eragindako kontzientzia-kargutik askatzeko.

Kontzientzia-kargua, ordea, une batekoa izango zen, zeren Yoyes bizitza osoan izan zen irakurle sutsu. Garai hartan, igande arratsalde asko ere irakurtzen ematen zituen. Lagunek gogoratzen dute askotan nahiago izaten zuela etxean geratu kalera atera baino, eta horrek asko harritzen zituen.

Irakurketatik, edo agian adierazteko beharretik, urte haietan sortu zitzaion jadanik idazteko ohitura ez bazen ere, bai behintzat idazteko gogoa; gerora, bere bizitzan etengabeko jarduera bihurtuko zuen. Hala erakusten du 1971ko maiatzaren bueltan idatzitako testu honek:

> Aurreko batean, leihotik begira nengoen frantseseko klasean, musika entzunez, eta zelai bat ikusten nuen, belarrarekin eta zuhaitz batzuekin; haizea zebilen. Belar bakoitza pertsona batekin alderatu nuen, denak mugitzen ziren haizearen arabera, eta galdetu nion neure buruari: zergatik ote naiz hain ahula?, zergatik ez ote naiz enborrari sendo eusten dion zuhaitz hura, nahiz eta bere hosto eta adarrak mugitu?, zergatik ez ote naiz enborra daukan pertsona, esentzia batekin, haizealdiek jo arren bere buruari eusten diona? […] Lortu behar dut! Ideiak eduki behar ditut, esentzia, eta indartsua izan!
>
> Hori dena nerabilen gogoan Politikako azterketa bukatzean, eta okurritu zitzaidan, txorakeria bazen ere, neure liburuan idatzi behar nuela. Bat-batean liburuari jarriko nion izenburua atera zitzaidan, eta ziztu bizian apuntatu nuen, ez ahazteko: *Bizitza arrunt baten lehen urteak.*



2

Hainbeste arrazoi dago ilusioa izateko!

(Ordizia, 1970-1971)

> Institutura jada prakekin eta anorakarekin sartu zinen; beste uniformerik janzteari uko egin zenion. Ia ez zenuen soinekorik erabiltzen, eta nik serio eta oso arduratsu gogoratzen zaitut. Martín Vigilen liburuak bazterrean geratzen hasi ziren; Lenin eta Marx irakurtzen zenituen, eta etxera iristen hasi ziren liburu eta paperak ezkutatu egiten zenituen. [Isa]

Hori da 1970eko lehen urte haietaz Isak gordetzen duen oroitzapena; Yoyes, Akademiako beste ikaskide batzuekin batera, sortu berri zen Beasaingo institutura batxilerreko azken urteak egitera aldatu zenekoa. Ikasle kopuru handia eta irakasle gazte eta gehienak irekiak zituen ikastetxe hartan, Yoyesek bere gazte garaiko kezkak garatzeko giro egokia aurkitu zuen. Ingurunearekiko jarrera aktiboa zuen, eta harreman oso onak ezarri zituen irakasle batzuekin. Jesus Etxamendik –batxilerreko 6. mailan Literatura irakaslea–, oroitzapen hauek gorde zituen garai hartako giroaz eta harremanez:

> Oraindik ere argi eta garbi gogora ditzaket 6. mailako klase hartako ikasle gehienen izenak eta aurpegiak. Haien janzkeraren harmoniak, begiraden garbitasunak, taldearen seriotasunak, jakin-minak eta talentuak liluratu egin ninduten lehen unetik.
>
> Hormaren ondoan, irakaslearen ikuspegitik eskuineko hirugarren lerroan, Maria Dolores dago, Yoyes, itxura hauskor eta azal zurbilekoa. Diskretuki begiratzen diot. Haren begiradak distira egiten du une batez: agian, jadanik, Himalaia mendien neurriko ilusioak begiztatzen ditu…; baina inguruko forjetako altzairuen kolpeek haren ametsen berehalako jauzia zapuzten dute. Kolpe metaliko gogorrek burrunba egiten diote bularrean, taupadak bizkortu eta begirada ilundu egiten diote.
>
> Ordurako, seguruenik, deika sentitzen zituen adar- eta danbor-hots urduriak, bere burua besteen zerbitzura jartzeko oraindik zehaztu gabeak ziren ekintzak eskatzen zituztenak.
>
> Talde-harremanekiko sentibera zen, eta elkarbizitza pizteko jarduerak proposatzen zituen. Taktu bikainez, tirabirak leundu eta balizko hausturen hasiera oro mozten zuen.
>
> Bere izaera irekiak, jokabide espontaneoak, adiskidetasun zintzo eta leialak erabat harrapatu ninduten. Garai hartako lotura afektiboak dira, urteak igaro arren, ondorengo gertakariek batere aldatu gabe iraun dutenak.

Hamasei urterekin bere etorkizunaren erantzule sentitzen zen. Erosotasunak, kalitateak edo irabazi-goseak ez zuten inoiz bere planak aukeratzerakoan erabakitzen. «Magisteritza-ikasketak egingo ditut», esan zidan behin. Uda partean, haur batzuei eskolak eman zizkien. Laster ohartu zen haurtzaroko zoriontasun ezaren arrazoiez, eta haur askok pairatzen zuten hutsune afektiboa betetzea proposatu zion bere buruari. Une hartan, ez zuen irakaskuntza beste edozein lanbide bezala ikusten; berarentzat bokaziozko eginkizuna zen, ia sakratua, erabateko eskuzabaltasuna eskatzen zuena.

1970-71 ikasturte hartan, barne-astindu sakona bizi izan zuen. Erlijioa bizitzaren ardatz bihurtzeak kezkatzen zuen. Aste Santurako prestakuntza gisa, hiru eguneko ariketa espiritualak egiten genituen ikastetxean. Eguerdia zen. Lurpeko pasabidera jaisten den eskailera aldapatsuaren ertzean, ekitaldi erlijiosoen nondik norakoaz ari ginen hizketan. Maria Doloresek esan zuen nahiago izango zukeela hitzaldiak irakasle batzuek eman izan balituzte. Haren iritziak poztu baninduen ere, erantzun nion ez nengoela horretarako prestatua eta ez nintzela, jakina, Grazia jainkotiarra helarazteko bitartekari egokia. Maria Doloresek bere tesia defendatu zuen: «Apaizak gizon arruntaren bizitzatik urrun bizi dira. Teoria handien ordez, benetako arazoentzako erantzun zehatzak behar ditut».

Bere kezka erlijiosoak Taizéra erromes joateko aukera planteatzera eraman zuen. Mugimendu espiritual haren sinpletasunak eta freskotasunak bere bizitza behin betiko bidera zezaketen; baina bestelakoak ziren kolektibitatearen sentimenduak, gazteen ahaleginak, ideologoen helburuak.

Gure herriari buruzko mespretxuzko jarrerek edo hitzek min handia egiten zioten. Gogoratzen dut, protagonistaren jatorria kontuan hartuta, bizkaitarraren abentura aukeratu nuela On Kixote azaltzeko. Irakurtzen ari nintzela, nekez eutsi ahal izaten nion Don Santxo Azpeitikoaren esaldiek eragiten zidaten barreari. Yoyesek haserre komentatu zuen: «Baserritarren hitz egiteko modua barregarri uztea irain lotsagarria iruditzen zait». Nik Cervantes defendatu nuen, haren hizkuntza-sena goraipatuz esan nuen: lerro gutxi batzuk aski ditu On Kixoteren pareko bertuteak dituen pertsonaia bat karakterizatzeko.

Eszena hori bereziki gogoratu nuen urte batzuk geroago, bere ahizpa Isak jakinarazi zidanean Yoyes Kixote irakurtzen ari zela eta hura irakurtzeaz gozatzen ari zela. Albisteak lasaitasun handia eman zidan, uste osoa izan bainuen Cervantesen heroiaren sakontasunak eta handitasunak bere ideia politikoak berraztertzen lagunduko ziotela.

1970-71 ikasturteak amaiera zoriontsua izango zuen Yoyesentzat: ikasketa-bidaia Andaluziara, maiatzean. Bueltan, eguneroko moduko bat idatzi zuen oso zehatza, eta bertan argi ikusten da esperientzia oso interesgarria eta atsegina izan zuela. Nerabezaroan etxetik urrun zihoan lehen aldia zen eta aukera aprobetxatzen jakin zuen, oso jarrera irekiarekin, bai ikaskideekiko, bai kanpokoarekiko. Ez ziren falta izan topaketa bitxi eta adierazgarriak, egunerokoan kontatzen duen hau bezalakoak:

Generalifetik Granada erdialdera jaitsi ginen. Han bi mutilek sua eskatu ziguten, hizketan hasi ziren eta guk esan genien erakusteko katedrala eta gero taberna merkeren bat ogitartekoak jateko. Sorpresa galanta eman zigutena! Izan ere, militarren semeak ziren eta *grisetarako*[2] prestatzen ari ziren. Esan ziguten han ere iskanbilak bazeudela, igeltseroen greba batean oraintsu bi hildako izan zirela eta gau batean bandera komunista bat agertu zen tokia erakutsi ziguten.

Nolanahi ere, beldur ziren ez ote zituzten hona bidaliko, bazekiten ETAk zer esan nahi duen. Yoga, judoa, borroka librea eta nik ez dakit zer gehiago ikasten dute, baina esan genien garrantzitsuena mendian ibiltzen jakitea dela.



Lehengusuekin ezkontza batean. Yoyes ezkerreko izkinan.

Yoyesek oso inpresio ona ekarri zuen Andaluziatik. Lehengusina bati idatzitako gutunean honela adierazi zion: «Ikasketa-bidaia ikaragarria izan zen; andaluziarren hain irudi txarra genuen…». Euskal Herrian bizi zuen giroa baino toleranteagoa eta friboloagoa ezagutzeko aukera izan zuen: diskotekak, ligoteoa, porroa… Denbora batez han ezagututako mutil batekin gutunak trukatzen jarraitu zuen, eta nolabaiteko arrastoa utzi zuen: Yoyes erail ondoren, Almuñécarreko taberna batean, gizon batek

[2] *Los grises/Grisak*: Francoren garaiko polizia armatua, gris kolorez janzten zirelako hala deituak.

euskal turista batzuei kontatu zien Yoyes ezagutu zuela urte batzuk lehenago, ikasketa-bidaia egiten ari zenean.

1970-71ko garai hartan hartu zuen ohitura Yoyesek bere sentimenduak, bizipenak eta kezkak idatziz jasotzeko. Segida izan ez bazuen ere, orduan hasi zuen eguneroko moduko bat. Gutunak ere asko idazten zituen eta horietatik kopia bat gordetzen zuen, zirriborro moduko bat, bere paperen artean. Nabarmentzekoa da, korrespondentziaren artean, 1969an Gonzalez familiaren jatorrizko herrira (Otero de Escarpizo, León) egin zuen bidaian ezagutu eta lehengusina txiki batekin izan zuena.

Idatzi horietan guztietan, munduarekiko jakin-min handia duen nerabe bat ageri da, borondate indartsukoa eta etengabe hobetzen jarraitu nahi duena, eta batez ere, askotan modu esplizituan adierazten duen bezala, bizitza ahalik eta kontzientzia handienarekin landu eta bizi behar delako uste sendoa duena. Hala adierazten dio Arantxa Otaño lehengusinari 1971-08-11n idatzitako gutunean:

> … Zure baitan *bizitza* batek hazten joan behar du, zuregan garatu behar du, *bizitza* hori orain zugan umekia bezala dago, existituz baina jaio gabe, eta hori da garrantzitsuena pertsona batengan, ez baita hiltzen; bizitza immateriala, nortasunaren bizitza, norbere gogoaren bizitza, gauzak zuri ondo iruditzen zaizun bezala arrazoitzen eta egiten saiatuko zaren bizitza, eta ez esaten dizuten bezala bakarrik, nahiz eta besteen esperientziari ere entzun, bai noski. Arantxa, bizitza hori etengabeko borroka da, guztiaren zergatia da, baina merezi duen bizitza da, guztiz errealizatuko zaituen bakarra; zuk zeuk printzipio batzuk planteatzea eta jarraitzen saiatzea da; baina ez ahaztu ahulak garela eta borroka horretan askotan galdu gaitezkeela, hasieran behintzat.

Garai berean (1971-08-28), ahizpa Asuni idazten dio:

> …Atera ilusioa nonbaitetik. Hainbeste arrazoi dago ilusioa izateko! Uste duzu errazegia dela hori esatea? Asun, zaila dena, kostatzen dena, da gehien betetzen gaituena. Bila ezazu perfekzioa amore eman gabe.

Ideia horiek jada adierazten dute Yoyesek bizitzarekiko zuen jarrera. Bere idatzirik intimoenek agerian uzten dituzten kezken artean, lehenik eta behin, erlijioa dago. Garai hartan Yoyes oso fededuna zen, eta praktikantea ere bai. Parrokian katekesia ematen zuen, eta 1970eko uda osoan goizeko zazpietan jaikitzen zen egunero elizara joateko. Han gustura egoten zen, berak esaten zuenez, ez errituagatik beragatik, baizik eta fedean hausnartu eta sakontzeko aukera ematen ziolako. Hain zuzen ere, hilabete batzuk lehenago,

bere sinesmenei lotutako oztopo bat gainditu behar izan zuen. Ama, ezustean, haurdun geratu zen. Haren osasuna arriskuan zegoen, eta nolabait aukera planteatu zen: ama ala umea. Apaiz batek esan zuen, fedearen argitan, halakoetan umea aukeratu behar zela. Yoyesek ezin zuen hori onartu, eta apaizaren iritziaren aurka oldartu zen. Nola geratu amarik gabe? Zorionez, kontuak amaiera ona izan zuen: 1970eko ekainean jaio zen Gema, familiako txikiena, eta Angelitak osasuna berreskuratu zuen.

Erlijio-bizipen horretan eragin oso positiboa izan zuen Yoyesengan Ordizian ziharduen apaiz gazte batek: Felix Garitanok. Yoyesek beti aipatzen zuen maitasun eta miresmen handiz.

Opuseko kide batzuekin ere harremanak izan zituen, baina bere burua inola ere identifikatua sentitu gabe; aitzitik, erlijioaren zenbait formarekiko bere zentzu kritikoa izugarri zorrozteko balio izan zioten. Adierazgarria da idatzi hau, datarik gabea bada ere, ziurrenik 1971koa, non sexualitateari buruz zuen ikuspegia ere azaltzen duen:

> Emakume horiek diote sexu-instintuaren helburu bakarra ugalketa dela. Galdetu nion gainera: ugalketa bakarrik? Eta esan zuen, bai, bai. Orduan, zergatik dituzte anormaltasun psikikoak sexu-instintua nolabait ase ez duten ia pertsona guztiek? Ez ote du balio pertsona gisa ere errealizatzeko? Askotan, emakume bat edo gizon bat ezin al da gehiago errealizatu? Askotan emakume bat edo gizon bat ez al da zuk aurrera egiteko arrazoia, zeure idealarekin jarraitzera animatzen zaituena? Eta zergatik ez da ideal hori nobleena izango? […] Zuk zertarako jaten duzu? Bizirik irauteko, ez hiltzeko besterik ez?…

Erlijio-kezkak gizarte-kezkara eraman zuen Yoyes, bere idatzietan askotan agertzen dena, batez ere herrialde aberatsen eta pobreen, herri garatuen eta azpigaratuen existentziaz jabetuta; bidegabekeria ikusten zuen hor. Gizartearekiko kezkatik, Yoyesek Euskal Herriaren egoerari buruzko kontzientzia hartzera egin zuen jauzi. Hiru alderdiak –erlijiosoa, soziala eta nazionala– une hartan planteatzen zituen moduan aztertu eta, horrez gain, aurkitzen zituen zalantzak eta segurtasunik eza adierazten ditu 1971ko martxoaren 19ko idatzi batean.

> …Badut Jainkoagatik, hau da, besteengatik, zerbait egiteko gogo izugarria. Jesusi laguntzeko eskatu besterik ez dut egiten, batez ere adorea eman diezadala. KOLDARRA NAIZ!, horrela, letra guztiekin; argi dago: denak ematen dit beldurra, ez daukat behar adina irmotasunik ia exijitzen dudana egiteko, baina zer da hau? Zer egin dezaket neure buruarekin? Ez al dut inoiz neure burua gaindituko? Koldarra izateaz

gain ahula ere banaiz, ia beti EZIN DUT nazkagarri hori dut ezpainetan. Kontua da arrazoiak ateratzen ditudala horretarako, agian zuhurregia naiz edo ez dakit, baina badakit hau ez dela ona.

Asmoa dut urte batzuk barru Hego Amerikara joateko, misioetara. Egongo da jendea hau ere koldarkeriatzat hartuko duena, hemen ere ongia egin daitekeelako, hemen ere badagoelako sufritzen duen jendea; esan daiteke hemengo arazoekiko interesik ez dudala. Puntuz puntu joango gara: Euskaldun sentitzen naiz ni? Bai. Zenbateraino? Ez oso sakon, nolabait esateko. Zergatik? Espainia ere maite dudalako. Tontakeria bat izango da, baina selekzio nazionalen arteko futbol-partida bat dagoen bakoitzean, futbola gustuko ez dudan arren, Espainiak irabaztea nahi izaten dut, barrutik ateratzen zait. Zergatik?…

Ondoren, Francori eta beste pertsonaia politikoren bati buruzko iruzkin ez oso onak egiten ditu, eta jarraitzen du:

…Baina, nahi al dut nik Euskadiren independentzia? Uste dut herri gisa eskubidea duela. Izan ere, mundua nazioetan banatzea bera ere akatsa izan dela pentsatu behar da, eta herri askok egon behar dute kasu honetan; beno, niri hau dagokit, neure kolkorako esan dezaket, nire herria da, zure anai-arrebak dira. Ez. Nire anai-arrebak mundu guztia dira! Nire herria mundua da!

Saiatuko naiz neure burua ez engainatzen. Uste dut Euskal Herria, munduko beste edozein herri ez bezala, beti izango dudala gehiago gogoan eta maiteago, hori ere barruan daramat. Baina ahaleginduko naiz sentimentala ez izaten, bestela haren gonapean itsatsita pasatuko dut bizitza.

Beste galdera bat: nork behar nau gehien? Herri batek aske izateko eskubidea du; pertsona batek, berriz, bizitzeko, jateko… Nor dago lehenago? Gainera, herri horren askatasuna lortzeko indarkeria beste erremediorik ez dagoela esaten dute, odola isuri behar dela, HIL egin behar dela, eta pertsonarentzat egin behar duzuna da bildu, bizitzak salbatu. Beste puntu bat, ez dago ondo indarkeriara jotzea beste metodo batzuk probatu gabe, esaten dute probatu direla, jendea ez dela ergela, baina nik diot: Beste zerbait probatu al dut? Ez. Orduan…

Nahikoa sufritu dut pentsatzen ezetz, ni hasitako beste lan batzuen jarraipena naizela edo izan behar dudala, nik jarraitu behar nuela, norbaiten zuzia hartu. Baina ohartu naiz ez dela hala: burua dudala, pentsatzen dudala, kontzientziari entzuten diodala eta, beraz, hark esaten didana egin behar dudala, hori baita nik nahi dudana, bai, noski…

Yoyesek borroka ideologiko gogorra bizi zuen. Eztabaidatzen zuen, pentsatu, irakurri eta idatzi, kontraesanez beteriko itsaso batean murgilduta; izan ere, dena bere iragazkitik pasatu gabe, ezerk ezin zuen konbentzitu.

Che Guevararen egunerokoak lehenago eragin zion bezala, 1971ko abuztuan ETAren *Iraultza* agerkaria irakurtzeak ere zer pentsatua eman zion.

Bertan, Txabi Etxebarrietaren[3] hainbat idazki biltzen ziren. Yoyesek Etxebarrietaren pasarte batzuk transkribatu ondoren, gogoeta egiten du:

> …Orain dela egun batzuk irakurri nuen hori gauez, goizaldean. Negar egiteko gogo izugarria sentitu nuen, eta, egin, egin nuen; ez nuen ulertzen nola hil zitekeen ideal horrengatik, eta bere heriotzaren ondoren gertatuko zenaz ia inolako itxaropenik izan gabe; ez nuen ulertzen, eta orain ere ez dut ulertzen. Besteengatik eta Kristogatik hiltzea ez dut erraza ikusten, baina Hark behintzat bizitza honi, pertsonei, irtenbide bat eta zentzu bat eman digu, [Etxebarrieta] horrek hainbeste bilatzen zuen zentzua. Gauza batzuetan ez nago ados, noski, baina hori ez da orain garrantzitsua; nik hau idatzi dut nahi dudanean gogora dezadan nola pentsatzen duten –tira, gutxi gorabehera, baina…– zirkulu horietan.
>
> Tipo honek badu meritua, baina hain larria al da arazoa? Hala izan behar du, hainbeste jende dagoenean axola ez zaiona sufritzea ez bakarrik kartzela, eta aurretik eta bitartean datorrena, baita heriotza bera ere.
>
> Merezi ote du iraultza guztietan odola isuri behar izatea? Hori ote da benetan zerbait lortzeko modu bakarra? Eta ni, ordea, sinetsita nago ezetz.



Gabonak Goitinen, 1971.

[3] ETAk hil zuen aurreneko pertsona (Jose Pardines guardia zibila) Txabi Etxebarrietak hil zuen, Adunan. Guardia Zibilak eraildako lehen ETAkidea izan zen, gainera, Etxebarrieta, Tolosan. Dena egun berean gertatu zen, 1968ko ekainaren 7an.

| AURKIBIDEA |

Sarrera 13

1. Lehen urteak
(Ordizia, 1954-1970) 17

2. Hainbeste arrazoi dago ilusioa izateko!
(Ordizia, 1970-1971) 27

3. Garrantzitsuena aurrera egitea da, aurrera…
(Ordizia-Donostia, 1972-1973) 37

4. Ez naiz bakarrik sentitzen
(Ipar Euskal Herria, 1974-1977) 47

5. Geldialdi bat bidean
(Ipar Euskal Herria, 1977-1979) 61

6. Eta Mexikon nago!
(Mexiko, 1980-1981) 97

7. Hainbeste pentsatu dut zugan, ene txikitxoa
(Mexiko, 1981-1983) 139

8. Mexiko hain astuna gertatzen zaidan honetan…
(Mexiko, 1983-1984) 169

9. Zenbat aldiz has daiteke bizitzen bizitza batean?
(Paris, 1984ko abendua-Mexiko, 1985eko ekaina) 191

10. Udazkenean hostoak erortzen ikusiko ditut
(Paris, 1985) 205

11. Nire iragana bizkarrean dudala, aurrera egin nahi dut
(Donostia, 1985-1986) 219

12. Asteazkena, 1986ko irailaren 10a 245

Epilogoa 255